

BANDOA

ITSASONTZIEN SEGURTASUN NEURRIAK MADALEN EGUNEAN

Bermeoko Udalak eta Herri Babesak, Sustapen Ministerioaren 62/2008 Errege Dekretua kontuan hartuta, Madalen Egunean, uztailaren 22an, itsas jaiari parte hartuko dabenei itsasontziei bertan jasotzen diren segurtasun neurriak betetzeko eskatzen deute:

- Itsas jaiari parte hartzeko 4 metroko luzerea baino gehiago eukiko dau itsasontziak.
- Ezin izango dabe parte hartu: 4 metroko luzera baino gitxiagoko itsasontziak, belaz nabigatzen dabena, arraun ontzi edo taulak (piraguak, kayak, paddle surf taulak...), beste era bateko ur gaineko ontziak eta sei metro baino gitxiagoko itsasontzi pneumatikoak edo ur motoak, segurtasun taldekoak ez badira.
- Itsasontzietako aforoa errespetatuko da eta gitxienez, ontzian dagoan pertsona bakotzeko salbamentu-jaka bat egongo da.
- Iزارo inguruan, teila botatzen dan momentuan, itsasontziek euren arteko distantziak errespetatuko dabez.
- Itsasontziek aseguruak, dokumentazioa, eta salbamentu eta segurtasun baliabideak indarrean eukiko dabez, eta itsas zirkulazio eta segurtasun arautegia beteko dabe.
- Atrakatzeko eta urteteko maniobrak apurka egingo dira, eta urte dagozan itsasontziek ez dabe maniobrarik egingo aldi berean.
- Bidaian, norbere ontzian edo beste ontzi batean dagozan pertsonen segurtasuna arriskuan jarriko dauen maniobrarik ez da egingo.
- Itsasontziak segurtasuneko VHF 73 kanalera konektatuta egongo dira koordinatzailearen argibideak jarraitzeko.

Bermeon, 2016ko uztailaren 19an
ALKATEA